

2- Merkatuaren segmentazioa

Gure enpresan eskaintzen ditugun zerbitzuak 0-12 urteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta daude. Aurretik esan dugunez, 2 zerbitzu ezberdin eskaitzen ditugu. Haurtzaindegi zerbitzua 0-6 urteko umei zuzenduta eta errefortzu klaseak, aldiz, 6-12 urteko umei.

Enpresa handietan lan egiten duten gurasoek, normalean lan-ordu luzeak dauzkate eta ez dute denborarik edo baliabide nahikorik seme-alabak zaintzeko edo etxean norbait kontratatzeko; hori dela eta, guk lan hori aurrezten diegu haien seme-alabak zaintzen beraien lan tokian. Soilik lanera joan behar dira seme-alabekin eta gure instalazioetan utzi; era berean, aukera daukate umea bertan uzteko lan jardunaldia amaitu arte edo edozein familia-kide batek jasotzeko, kontuan izanda orduengatik kobratzen dugula. Jarduera hau, 0-6 urteen arteko umeentzako da.



Gure enpresak, errefortzu klaseak eskaintzen ditu baita ere. Zerbitzu hau 6-12 urteko umeentzat da, hau da, lehen hezkuntzan dauden ikasleentzat.



Argi dago bezeroak edozein enpresaren bihotza direla, beraz, gure helburua, gure bezeroen premiak modu egokienean asetzea da. Baita, enpresa handien langileak pozik izatea ere, gustora eta hobeto lan egiteko.



BABYSITTER S.A